



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

PREZIOAREN ETA ZERBITZUAK ORDAINTEZKO MODUAREN ZEHAZTAPENA.

11. Artikulua PREZIOAREN ZEHAZTAPENA.

PPT honetan aurreikusitako zerbitzuan, eskaintzeari dagokion prezio osoa honako baldintza hauen baturaren bitartez zehaztuko da:

- Laguntza teknikoa eskaintzera zuzendutako langileei dagokien prezioa.
- Zerbitzua eskaintzeko orduan burututako analisei dagokien prezioa.

12. Artikulua LANEN ORDAINKETA

12.1 Fakturak

PPT honetan adierazitako lanen ordainketa hileroko fakturen bitartez burutuko da. Horietan hilabetean zehar eskatutako analisietatik sortutako kostu finko zein aldakorrak barne hartuko dira eta bereizi egin beharko dira.

Balioari klausula administratiboen pleguaren hamalagarren klausulan jasotzen diren zigorrei dagozkien dedukziorik edo beste edozein dedukzio egonez gero, horiek hileroko fakturaren azken balioari aplikatuko zaizkio.

13. Artikulua PREZIOEN BERRIKUSKETA.

Kontratuak dirauen bitartean ez da prezioak berrikusterik onartu, ezta kontratuaren luzapenean ere.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

14. Artikulua AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

14.1 Dokumentazio teknikoa.

Aurkeztu beharko luketen dokumentazio administratiboa kontuan hartu gabe, Partehartzaileek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- Memoria funtzional eta teknikoa, PPT honetan jasotzen diren zerbitzu eta lanak burutzeko aurreikusitako antolakuntza eta gauzatzeari dagokiona.
- Zerbitzua eskaintzeko orduan erabili beharreko baliabide materialen deskribapena (laginak hartzeko tresneria, giltzak eta erremintak, ibilgailuak, eta abar).
- Organigrama funtzionalean, zerbitzuak eskaintzeko bete beharreko lanpostuetan esleitutako langileen kategoria profesionala, antzeko lanetan duten esperientzia, eta abar adieraziko da. Proposatutako langileen Curricula Vitarun-ak ere aurkeztuko dira. Gainera, aurreikusitako Prestakuntza Planari buruzko informazio zehaztua eta PRL sistema aurkeztu beharko dira.
- Udalari aurkeztu beharreko bestelako txosten ezberdinetan jaso beharreko informazioa.
- Organigrama funtzionala.
- Amorebieta-Etxanoko planoak, isurketei dagokienez gune eta enpresa gatazkatsuenak adierazita.
- Egin beharreko analisis burutzeko erabiliko den laborategia, horrek egiazta ditzakeen parametroen portzentajea adierazita.

14.2 Prezioen justifikazioaren azterketa ekonomikoa.

Eskaintza ekonomikoaren dokumentuan azken prezioak justifikatzen dituen azterketa gehituko da. Dokumentu hori PPT honetako oinarrietan adierazitakoa betez burutuko da.

Alde batetik, laguntza teknikoari dagokion kostua adierazi beharko da, eta, bestetik, Laborategiko analisiari dagokien kostua. Azken horietarako, Plegu honen 5.8 puntuan adierazitako parametroen prezio unitario zehaztuak emango dira.

Proposamen ekonomikoan sartu behar den azken emaitza zehazteko, Laguntza Teknikoaren berezko ordainsariei honakoei dagokien zenbatekoa gehitu beharko zaie:



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Parametroa	Lagin zenbakia
Ph	25
Eroankortasun elektrikoa (E.K.)	25
Esekitako Solido Totalak (EST)	25
Oxigeno-eskaera Kimikoa (O.E.K.)	25
Hidrokarburoak	18
Kjeldahl Nitrogeno Totala (NTK)	15
Kobrea (Cu)	12
Zinka (Zn)	12
Kromo totala (Cr)	12
Nikela (Ni)	12
Oxigeno-eskaera Biokimikoa (O.E.B.)	10
Nitrogeno amoniakala	10
Fenolak	10
Detergenteak	10
Aluminioa (Al)	10
Nitritoen nitrogenoa	9
Nitratoen nitrogenoa	9
Sulfatoak	9
Fosforo totala	9
Zianuroak	8
Tenperatura (Tº)	5
Kloruroak	5
Burdina (Fe)	5
Beruna (Pb)	5
Ekotoxikotasuna (Photobacterium phosphoreum)	2



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Zenbateko horiek gastu orokorren industria onuren eta aplikazio-zergen portzentajeak aplikatu ondoren kalkulatuko dira eta horiek esplizituki adierazita egon beharko dira.

Amorebieta-Etxanoko Udalak beretzat gordetzen du, aurkeztutako eskaintzetako bat ere onargarritzat ez hartzekotan, Kontratu hau esleipenik gabe uzteko eskubidea. Kasu horretan PPT honen xedea den zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu.

Amorebieta-Etxanon, 2017ko otsailaren 6an